



11. ZORTZIMILAKOA IGO DU EDURNE PASABANEK

Tolosarrak Asier Izagirrerekin batera lortu du Manasluko tontorra egitea; oxigeno laguntzailerik gabe igo du 7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Astelehena
2008-10-06**

VIURTEA 1.527.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jendetza egun guztian zehar aritu zen jai giroan; adin guztietako jendea hurbildu zen Anoeta eta Irura arteko zirkuitu burutzeraz; irudian, Che Sudaka taldea, Anoetako plazan. N. URBIZU

UNEA IGARO DA

KILOMETROAK Balantze ona egin dute: «garraio publikoa erabili da, jantokiak bete dira, ez da ezbeharririk izan...»

JAI GIROA Bost guneeetan eta egun osoan milaka euskaltzale hurbildu ziren Kilometroen jaialdira 2-8

Kilometroak

eskertirik asko



www.kilometroak.net

Kilometroetako antolatzaileek balantze «ona, oso ona» egin dute

Balantzea » Arduradunek esan dutenez, «jende asko ibili da, berrikuntzek arrakasta izan dute, garraio publikoa erabili da».

ERREDAKZIOA

Kilometroetako lehen balantzea atzo 16:00etan egin zuten antolatzaile eta arduradunek. Irurako Ikastolaren egun handiaren inguruan lanean aritu zirenen esanetan, «orokorrean, balorazio bakarra da: ona, oso ona».

Antzeko ospakizunek zenbaki dantzak izan ohi dituzte hurrengo egunetan zehar. Antolatzaileek kasu honetan, argi azaldu zuten ez zirela Kilometroetan bildutako kontaketa lanekin ariko. Hala eta guztiz ere, lehen balantzea plaza-ratzean, «jende andana, jendetza, hainbestekoa izan da bildutako jendearen kopurua, jende uholdeak, bete egin dira» eta antzeko hitzak erabili zituzten poza ezin ezkatutaz.

Azken orduko moldaketak

Jaia amaitu aurretik egin zuten Kilometroak 2008ren balantzea eta gustura agertu ziren: «Etorri den jende andana kontuan hartuta, eta Kilometroak-08k eskaini duen zerbitzuari erreparatuta, irakurketa ona besterik ezin dela egin iritzi diogu».

Jendetza bildu da Iruran eta Anoetan, ibilbideak bi herriak hartzen baititu, eta hainbestekoa izan da bildutako jendearen kopurua, ibilbidean moldaketa txiki batzuk ere egin behar izan ditugula». Esaterako, bazkal orduan, Anoeta eta Irura arteko zubia zabaldu egin behar izan zuten antolatzaileek. Ordu horretan, izan ere, Anoetako Renfeko geltokira jendea iristen ari zen oraindik.



Goizean goizetik jende andana bildu zen Irurako Kilometroak 2008ko ibilaldian barrena egunaz gozatzeko asmoz, R.C.

Arazo txikiak konponduz

Arazoren bat aipatzekotan, galdutako umeak aipatu zituzten: «Jende uholdeak sortu ohi dituen arazo txikiak baino ez dira gertatu ordu honetarako. Batik bat galdutako umeak izan dira arazo horien iturri». Dena dela, antolatzaileak gus-tura zeuden, «aurten abian jarritako identifikazio pultseren sistemak asko erraztu baitu lan hori ere».

Berrikuntzak eta ohikoak

Haurren identifikazio pultserez gain, berrikuntza gehiago egon ziren atzoko Kilometroetan. Hauen inguruan ere pozik agertu ziren antolatzaile eta arduradunak: «Aurtengo beste berrikuntzei dagokienean, irakurketa baikorra egiten dugu. Bizikletentzako apar-

kalekuak bete egin dira, edoskitze puntuetan egun osoan izan da joan-etorria eta bluetooth bidez milaka jendeak jaso du informazioa, une oro».

Txosna eta jantokien funtzionamenduarekin ere gustura agertu dira antolatzaileak. «Jantokiak beteta izan dira, eta 2.000 lagunetik gora izan dira bazkaltzen gune horietan. Txosnetan, berriz, arratsaldeko ordu honetarako ia agortzen ari ziren ogitartekoak».

Eskerrak emateko unea

Kilometroak ez ditu pertsona, el-karte edo ikastola batek bakarrik antolatzen. Hori kontutan izanda, Irurara gerturatu zirenei, lanean aritu zirenei eta oro har, atzoko eguna aurrera eramatea lortu zuten guztiei, eskerrak eman nahi

izan zizkien lehen balantzea egite-rako unean. Honekin batera, garraio publikoaren apustua ongi ir-ten zela aipatu zuten. «Antolatzaileok egindako deialdiari ondo baino hobeto erantzun dio jende-ak, eta hori izan da Irurara bertaratu-tako gehiengo handi batek erabi-ili duen garraiobidea. Hortaz, antolatzaileok eskerrak eman beharrean aurkitzen gara, jendeak esandakoari kasu egin eta halako egun baten antolaketa lana erraztu dutelako. Halaber, etorritako guztiei eman nah dizkiegu eskerrak, etabatik bat, eguna hain ondo ir-ten dadin lagundu duten boluntario guztiei».

Inaugurazio ekitaldia

Hotz handiarekin egin zuten inau-gurazio ekitaldia lehen gunean,

Irurako ikastola berriaren kanpo-aldean, hain zuzen. Han bildu zi-ren, besteak beste, Irurako ikasto-lako zuzendaria Josune Aiestaran; Marimi Ugalde, Irurako alkatea; Eusko Jaurlaritzako bozeramaile den Miren Azkarate; Ikastolen Federazioko lehendakaria Arantxa Manterola; Jaurlaritzako Sustan-phen departamentuaren arduradun den Tontxu Kanpos; Gipuzkoako Ahaldu Nagusia Markel Olano; Anoetako alkatea Periko Peñagarikano eta eskualdeko uda-letako hainbat ordezkarari.

Kike Amonarriz tolosarra izan zen aurkezle lanak egin zituztena, organo-jotzaile baten laguntzare-kin, eta umorearentzako tartea ere eginenez. Euskalzaile guztien festara ongietorria eman ondoren, agintar-iei hitza eman zien bana-bana. Marimi Ugaldek hartu zuen hitza lehenik. «Irura asko hazi da azken 13 urteetan eta behar horri erant-zuteko azpiegitura egokiak behar-rezkoak dira, horien artean ikas-tola berria den eraikuntzan lagun-tzea ezinbestekoa ikusi genuen».

Sorkunde Irazu Irurako ikasto-lako lehendakariak, berriz, «Irura-ko herritarrek egindako lana» go-raipatu nahi izan zuten, eta Irurako ikastolaren alde lanean jarraituko dutela azpimarratu.

Agintari guztiek hitz egin ondo-ren, festari hasiera emateko unea heldu zen, zinta mozketarekin. Sorkunde Irazuk eta hainbat ikas-lerak puzgarriak bota zituzten zeru-ra.

Aldarrikapenak

Inaugurazioa hasi baino lehen hainbat lagunek aldarrikapen pan-kartak atera zituzten, «AHTren aurka, ilegalizazioaren aurka, iru-zurraren aurka eta euskal presoen aldeko» aldarriak erakutsi zituz-ten, besteak beste.

Datorren urtean, Donostian izango da Kilometroak

Atzo, eguerdi aldean, eman zioten lekukoa Irurakoek Donostiako Zurriola ikastolakoei. Bertan izan-go baita 2009. urteko Kilometroen jaialdia.

Ibarrako Udala ere kilometroakekin



**Mila
esker!**



eraikitzen
kilometroak-08 **ITUTA**

I Inkesta

1. Zergatik etorri zara? 2. Horrelako jaiak beharrezkoak direla uste al duzu?



«Gure hizkuntzari bultzada eman behar diogu»

Iñaki San Sebastian
ZIZURKIL, 39 URTE

1. Euskarari bultzadaxo bat emateko etorri gara.
2. Gure hizkuntzari bultzada eman behar diogu. Euskarari laguntzeko horrelako festa etortzea garrantzitsua da.



«Dena ikustera etorri naiz, denetatik probatzera»

Andoni Agirrezabala
IBARRA, 9 URTE

1. Ondo pasatzera etorri naiz lurrara; dena ikusi eta denetatik probatzera.
2. Ikastolarentzat dirua biltzeko eta gauzak aurrera ateratzeko dira beharrezkoak.



«Hiru urteko haurrak festa ezagutzeko etorri gara»

Letizia Arteaga
DONOSTIA, 38 URTE

1. Ikastolen mundu honetan asko ibili naiz, ni ere irakaslea naiz. Hiru urteko haurrekin etorri gara berak ere hau ezagutzeko.
2. Jendea elkarrekin egoteko, euskara ere gehiago hitz egiten da.



«Betidanik etorri gara Kilometroetara»

Lurdes Alkain
ANDOAIN, 57 URTE

1. Betidanik etorri izan gara eta bakarrik huts egin dugu. Arrazoiak: euskararengatik eta semeak ikastolan ibili direlako.
2. Bai, dirua atera ahal izateko eta oraindik ere behar delako.



«Euskaldun jendea biltzeko gune bat da»

Eguzkiñe Plazaola
URRETUXU, 30 URTE

1. Lehen, gaztetan, beti etortzen ginen eta aurten beste plan batekin, lagunekin eta haurrekin.
2. Dirua biltzeaz gain da, euskaldun jendea biltzeko da baliagarria. Garai hauetan beharrezkoa da.



«Euskal kultura bizirik dagoela erakusteko»

Marti Erra
KATALUNIA, 24 URTE

1. Beste lagun batekin etorri naiz, biok irakasleak, eta beti interesatu izan zaigu euskal kultura.
2. Bai, Euskal Herriari bai ondoko lurraldeei euskal kultura bizirik dagoela erakusteko.



«Ea noiz tokatzen zaion Astigarragako ikastolari»

Unax Casado
ASTIGARRAGA, 37 URTE

1. Umea dugu eta honelako batera etortzeko gogo geneukan.
2. Astigarragan ere ikastolarekin arazoak daude eta beharrezkoa da jai egitea. Ea noiz tokatzen zaion Astigarragaokari.



«Ikastolak bultzatzeko garrantzitsua da»

Alazne Aranguren
ZUMARRAGA, 27 URTE

1. Urtero etortzen gara eta gaur, egia esan, mendira joateko asmoa genuen eta hori egin ordez hona etorri gara pixka bat ibiltzea.
2. Ikastolak bultzatzeko garrantzitsua da.



«Ume askok gazteleraz egiten dute»

Begoña Amantegi
ANDOAIN, 45 URTE

1. Ohitura dugu etortzeko, batez ere inguruko herriren batean izaten denean.
2. Euskara bultzatu behar da zeren eta ume askok gazteleraz egiten dute eta hori aldatu behar da.



«Euskararen aldeko dirua biltzeko egin behar dira»

Begoña Zubizarreta
AZPEITIA, 40 URTE

1. Umeekin etorri gara. Beti etortzen gara, batez ere eguraldi ona egiten duenean.
2. Horrelako festak egin behar dira euskararen aldeko dirua bildu ahal izateko.



«Dirua uzteko asmoarekin etorri gara lurrara»

Amaia Otaegi
BERROBI, 35 URTE

1. Lehenagotik ere etortzeko asmoa geneukan, baina eguraldi hau ikusita ez dugu zalantzarik izan.
2. Beharrezkoa da ikastolak aurrera ateratzeko. Dirua utzi eta umeekin eguna pasatzeko etorri gara.



«Helburu bera dugu, euskararen alde egitea»

Beatriz Igoa
ASTIGARRAGA, 33 URTE

1. Jai polita da eta hemen biltzen garen guztiok gainera helburu bera dugu, euskararen alde egitea.
2. Komeni da honelakoak egitea eta hemengo ikastolak ere eskertuko du jende asko etortzea.



«Urte guztian zehar egin behar da euskaraz»

Izaskun Zabala
ZUMARRAGA, 57 URTE

1. Etortzea gustatzen zait, normalean beti etortzen naiz.
2. Horrelako festak egin behar dira, baina ez da nahikoa gaur etortzearekin, urte guztian zehar ere euskaraz hitz egiten behar da.



«Parranda egitera etorri gara Kilometroetara»

Jon Arunburu
GETARIA, 18 URTE

1. Parranda egiteko etorri gara. Egia esan zirkuitua egiteko asmoa ere ez geneukan, baina egitea tokatu zaigu.
2. Urtean horrelako zenbat eta gehiago egin, orduan eta hobeto.



«Beti hartu izan dugu parte Kilometroetan»

Juan Luis Bidarte
ZUMARRAGA, 46 URTE

1. Beti hartu izan dugu parte Kilometroetan eta gure seme-alabak ere ikastolara joaten dira.
2. Euskaltegien egiten dut lan eta ondo ezagutzen dut mundu hau. Ezinbestekoa da etortzea.



CITRÖEN BERLINGO BERRIA BENETAN NAGUSI DIRENENTZAKO

ETA GAINERA, IBILGAILU KOMERTZIALEN MERKATUAN LIDERRA DEN
GAMA AURKEZTEN DIZUGU.

Citröen
JUMPER
HDi

15.400€^{*tik aurrera} + BEZ

Citröen NEMO
8.250€^{*tik aurrera} + BEZ

Citröen
BERLINGO FIRST
8.400€^{*tik aurrera} + BEZ

Citröen JUMPY HDi
14.900€^{*tik aurrera} + BEZ

Berlingo

ETOR ZAITEZ: **IROVI, S.A.** Citroën Konzesionario Ofiziala
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITRÖEN

JENDE UHOLDEA



Goizean hasi ziren atzokoan lehen euskaltzaleak, hotzari aurre eginez (goian); behean, eguzkia berotuz joan zen eta arropa gutxiagorekin ageri da jendea; eskuinean, 2. gunean, atseden hartzen... 11

DASTATZEN

DASTATZEN HARAGIAK
Kalitateko produktu eta behi txuletetan berezitasuna.
Bezerearekiko zerbitzurik onena.

IPAR OKELA
Hezur gabeko kalitateko txuleta. Eretegi onenetako produktua orain zure etxean gozagarri.

eraikitzen
Kilometroak-08 Inaura

Mila esker!

Irurako Udala

eraikitzen
Kilometroak-08 Inaura

Eguneko inudiak» Milaka lagunek egun pasa ederra egin zuten atzo Irura eta Anoeta bitartean antolatutako zirkuituan.

BERDANAKOIA
Une heldu da eta pasa da... Bizikletaz, autobusez, autoz, trenez eta oneraz. Era guztietako garraiobideak ailegatu ziren atzo goiz goizetik euskaltzaleek Irurara. Denak ere asmo berdintsuarekin, ongi pasatzea eta ja ginoaz gozatzea.

Hoz egiten bazuen ere goiztiar ibili zen jendea, eta 1000etarako ibilbideko kaleak bete ta zeuden. Hotsari aurre egiteko hainbat aukera erabili zituzten euskaltzaleak: batzuk arropa, besteek eldaria eta zenbait dantzan hasia.

Bos gune zituen ibilbideak, bertara, sei kilometro eta erdiko bidea

ostuz. Batzuk, egunari hasiera emateko ibilbide guztia behar izan zuten. Gune bakoitzen zer zegoen ikusi ondoren, arratsaldea non pasatu aurretiko.

Guraso guztiak haurrak soinean zintzela ikusi zitezkeen, baita Kilometroan jarraitzaile beterranoak ere. Hain da, lehen ikastolak erabiltzen lagundu zutenak. Kilometroan adin, sexu eta jatorri guztietako lagunentzat egon zen tokia. Horren sarrera de izan zen urtero 100.000 pertsona inguru hurbiltzen zirela ikastolen aldeko festara.

Urtero inudiberdintsuak errepikatzen dira esan daiteke: agintariak zinta moztzen, aldarrikapenak, jende larrik ibilbidea sartzeko, jokuak, kale animazioak, kontzertuak, bertsoariak eta haurren jolasak. Baina hala ere jendea ez da asperton eta egun paregabea izaten lagabierentzat.

Guneetan ekitaldi ugari
Gidatzen mitz, zintzaldien elinuditu ugari izan ziren eta guztiak izan zuten gozatzeko aukera: kontzertuak, dantzaldiak, kirolak, jokoa, jantria, eldaria, haurrentzako ekitaldiak... Ez zen ezer falta.

Jendeak ere ondo erantzun zuten eta gune guztiak bete ziren. Bisitariak gune guztietan zabalduta ziren eta ez zen gune hutsik izan. Egunak bereak egin du eta biharan berarekin guztia biltzeko unea heldu da.



Sorkunde Iruzu, ikastolako lehendakaria, ikasleekin zinta moztzeko unean... 12



Hotsari ihes egiteko ibilbideari elin zioten gabezan euskaltzaleak. 13



Tren bakoltza jendea betarik itxi zen. Atsedean hartzeko zabalak, nola ez... 14

Zuri Arran
Burgineta & barnegeleak

PEUGEOT 4007 4x4

TOLOSÁ MOTOR, S.A.
Bos. Tolosa, 11-A
48940 Tolosa (Gipuzkoa)
Fon: 943 952222 Fax: 943 952222
E-mail: tolosa@tolosa-motor.com



» INKESTA

1. Zer iruditzen zaizu
Kilometroetan edoskitze
gunea jartzea?«Eguraldi txarra egiten
duenera egokia da»

Jabier Vidal

ERMUA

1. Oso ondo iruditzen zaigu niri eta nire emazteari, batez ere, eguraldi txarra egiten badu. Egia esan, arratsaldean etorri gara eta ez zaigu tokatu erabiltzea baina bestela ka-lean moldatu behar gara.

«Guneetara iristea kaos
bat da baina ideia ona da»

Ainhoa Labaka

USURBIL

1. Alternatiba ona iruditzen zait baina kaos bat da, jende gehiegi dabilelako egun honetan eta edoskitze guneetara iristeko asko kosta-zen da».

«Ohituta ez dagoen
jendearentzat oso ona da»

Amaia Heriz

BALIARRAIN

1. Ideia ona da baina hiru seme-alaba daukat eta kalean titia ematen oso ohituta nago. Baina ohituta ez dagoen jende horrentzat oso praktikoa iruditzen zait ekimen hau».

Gazte bat bluetooth-aren bidez informazioa jasotzen: goian, bizikleta aparkalekua lepo, eta behean, edoskitze gunean fardelak aldatzen. A. IMAZ / I. GARCIA

Aurtengo berrikuntzek euskaltzaleen erosotasunari egin diote mesede

Berrikuntzak » Bluetooth zonaldeak, bizikleten aparkalekuak edota edoskitze guneak erabilera handia izan dute.

NEREA URBIZU

Irurako Kilometroak antolatze-ko denbora eta hilabete asko eman dituzte. Ideia, asmo eta xede berriak plazaratzen joan dira denbora honetan guztian (pentsatzeko ere denbora hartu beharra dago), eta aurtengo ideia berri garrantzitsuenak edo esanguratsuenak, bizikleta parking-a, identifikazio pultserak, bluetooth guneak eta edoskitze guneak izan dira: guztiak ere, hurbildu denarentzat zerbitzu eta erosotasun handiagoa emateko helburuz.

Bizikleta parking-a Etxezarreta

pasealekuan eta Loatzo plazaren alboan jarri zuten, hau da, 5. gunearen ondoan. Erreka eta etxebizitzak babesle moduan izanik, eta bertan zeuden 3-4 zaintzaileak egonik, bizikletak bertan uzteko arriskurik ez zegoen. 400 bat txirringula uzteko aukera egon zen eta goizean goizetik, aparkalekuak bizikletez beteta zeuden. Antolatzaleek adierazi bezala, «hau gehienbat, eskualdekoentzat zegoen pentsatuta. Bete ala ez bete, aukera hori egon da, bizikletan etortzearena, hain zuzen».

Bizikleta uzteko leku edo eremutxo bakoitzak zenbaki bat zuen, eta txirringulariari eskumuturreko bat ematen zitzaion, zegokion numeroarekin.

Haurrei ere eskumuturreko edo pultsera jartzeko aukera bazen atzo, izan ere, jende uholdeek sortzen duten arazoetako bat umeak

galtzearena izaten da, baina aurtent, identifikazio pultserak jarri dituzte, eta emaitzak oso onak izan dira.

Bluetooth zertarako?

Bluetooth-a ere izan zen Iruran, bi puntutan zehazki esanda: bosgarren gunean eta hirugarrenean. Konexio mota honekin, bertatik sakelakoarekin pasaz gero eta bluetooth-a konektatuta izanez gero, handik pasatuz, mezu bat iristen zen: informaziorik ea jaso nahi ote zen doan, Kilometroak-ekin lotutakoa, noski. «Eskuorrian baino informazio gehiago jaso ahal da: ibilbidea, mapa, helburuak...» antolatzaleek argitu bezala.

Dena dela, aukera ezberdinak izan ziren informazioa jasotzeko, izan ere, sms bidez ere jaso zitekeen 553 zenbakira *Kilometroak* bidalitz (hau ordainduta, ordea).

Edoskitze gunea, ideia egokia

Baina agian berritasunen artean bereziarena edo bitxiarena edoskitze gunearena izan da: «Ideia ximpleenetik ateratakoa izan da hau: zehazki garbitasun ingurugiro batzordeak bota zuen ideia. Politia eta interesgarria izan zitekeela ikusi genuen eta horregatik bilatu berezi prestatu genituen», alegia, 4. gunean eta 5. gunean.

«Iruran guraso gazte dexente dago eta ideia ia naturala izan da, beharra bezala ia-ia». Edoskitze gune hauek bi lokal ziren, Anoetako ikastolan bata eta bestea bulogo batean, Iruran. Bi gune hauetan fardelak eta eskuoihal bereziak zeuden, haurren pixoihalak aldatu ahal izateko. Bularra emateko amek aulkiak zituzten, eta egun honetan zaila izaten den lasaitasun edo ixiltasun hori aurki zezaketen haurrek.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Kaldereroa.** Kaldereroa behar da lan erradiografiatuentzat eta homologazioarekin. 685 75 80 93.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82 telefono zenbakietara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Boluntarioen lana, ezinbestekoa jaialdia aurrera atera ahal izateko

Antolakuntza » Aurretik lan gogorra egin dute boluntarioek eta egunean bertan ere ehunka lagun aritu dira lanean.



DYAko langileak goizetik adi egon ziren gune guztietan. N. LATABURU

ERREDAKZIOA

Treanean igo, Irurara heldu, trenetik jaitsi, zirkuituan sartu, zerbitzatu, zerbitzatu, kontzertuak entzun, elastikoren bat erosi, ... Atzo Irurara hurbildu ziren gehienek egingo zuten hau. Baina, hau guztia egin ahal izateko, zenbat lagun behar dira lanean? Tren geltokiko boluntarioak, zirkuitu sarrerakoak, tiket saltzaileak, txosnetako langileak, zirkuituan zehar daude-nak, soinu teknikoak, musikariak, saltzaileak, ... Lan nekeza eta ezinbestekoa festa aurrera atera ahal izateko.

Zirkuituko bost guneetako txosnetan jende ugari aritu zen zerbitzatzeko. Hiru tanda egin zituzten horretarako, goizekoa, egun erdi-koa eta arratsaldekoa. Bigarren gunean lanean aritu zen irurar batek azaldu zuenez, «jende ugari ibili da, eta lan handia izan dugu; baina horrelako egun batean badakizu zer dagoen; gainera, gustura egiten



Tiket saltzaileek lan handia izan zuten. N.L.



Saltokietan eta etengabe aritu ziren lanean. N.L.

duzu lan helburua betetzeko beharrezkoa delako; gure umeengan pentsatu behar dugu». Produktu aldetik arazo handirik ez zela izan gaineratu zuen: «Beti falta da zeezer baina jendeak ulertzen du».

Aukera zabal Kilometroen produktuak eskuratzeko

Urtean zehar Kilometroetako dendan izan da bertako produktuak erosteko aukera. Horretaz gain, atzo ere Kilometroetako elastikoak, jertseak, galtzak, ... erosi ahal izan zituzten ehunka lagunek. Bertan saltzen aritu zirenek azaldu zuten, «jende animatzen ari da erostera eta oso gustura gaude; gainera, jende pila bat ikusten ari gara Kilometroetako jantzi-ekin eta hori oso pozgarria da urte guztian egin dugun lana agerian geratu delako eta, bestetik, jendeari asko gustatu zaizkiren seinale».

DYAren eta Gurutze Gorriaren lana

Lehen eta bigarren gunean DYAko langileak egon ziren lanean eta hirugarren, laugarren eta bosgarren gunean, berriz, Gurutze Gorrikoak. Azken hauek 35 langile jarrituzten zirkuituan zehar eta jakitera eman zuten, alkoholaren eraginez kaltetutakoak artatu behar izan zituzten gehienbat. Bigarren gunean jaso ziren horrelako kasu gehienak. Lipotimiarren bat ere izan zuten eta aitona bat ere artatu behar izan zuten. Gaintontze-koan, egun lasaia izan zen.

Edurne Pasabanek 11. zortzimilakoa igo du

Tolosa » Asier Izagirrekin batera Manasluko tontorra egitea lortu du; oxigeno laguntzaileak gabe igo du.

E. EZEIZA

Irailaren hasieran abiatu ziren espedizioan, Manasluko tontorraren bila. Bere helburua lortzeko bidean, hau da, 14 zortzimilakoa egin nahi horretan, pauso berri bat eman du 8.163 metroko gailur hau igoztean. Dagoeneko hiru zortzimilako bakarrik falta zaizkio: An-



Edurne Pasaban eta Asier Izagirre Manasluko tontorrera iritsi dira. I.T.

napurna (8.091), Kangchenjunga (8.598) eta Shisha Pangma (8.027) hain zuten ere.

Aurten igotzen duen bigarren zortzimilakoa da. Izan ere, maiztaren lean, Dhaulagiriko (8.167 metro) tontorra zapaldu zuen. Orain, bere ibilbidearekin jarraitzeko, Tibetera joateko asmoa agertu du mendigoizale tolosarrak. Shisha Pangmara igo nahi baitu.

Goizaldeko bost t'erdietan atera zen atzo Pasaban hirugarren kampanentutik (7.400 metro). Gainera, oxigeno laguntzarrik gabe lortu du tontorrera 09:00ak aldera

iristea. Espedizio honetan bidelagun izan du Asier Izagirre tolosarra. Eskualdeko bimedigoizaleez gain, ondorengoak ere igo dira Dhaulagirira: Alex Chicon, Mikel Zabalza, Ester Sabadel, Ferran Latorre eta Juanjo Garra.

Gaua bereziki hotza izan zen Himalaian, baina goizaldera epelduz joan da. Hotz hori izan zen Edurne Pasabanek nabarmendu zuen egoera. Bestalde, gune batzuetan haize handia ibili zen, eta tolosarraren esanetan «zortea izan genuen, batzuetan ezinezkoa baitziriduen igoerak, baina azken metroetan haizea baretu zen».

informazioa
h
i

HITZAren harpidedun egiteko:

902-82 02 01
hitza@harpidetza.info

egunkaria buzoian,
zozketak eta deskontuak,
promozioetan abantailak,...

hitza, orain gertuago

HITZAri buruzko informazioa



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldia: 687 410 032. ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

ERREDAKZIOA

Eskualdearentzat eta euskaltzaleentzat egun berezia izan zen atzokoa. HITZAK ekarpen berezia egin nahi izan zien Kilometroei. Horrelako jai batean ezin baita falta euskaltzaleon egunkaria. Hori dela eta, ale bereziak prestatu zituzten atzorako, jaialdiaren xehetasun guztiak azalduz. Ibilbidean zehar eskuratu ahal izan ziren ale berezi hauek, baita HITZAREN postuan ere. Jendeak gustura irakurri zuen jaialdiaren nondik norakoen berri eman zuen ale berezia.

**HITZAREN postua
Kilometroetan**

Nikiak, elastikoak, jertseak, termikoak, bufandak, xirak,... erosi ahal izan ziren Irurako plazan HITZAK atondu zuen erakusmahaietan. Jende ugari ibili zen eta salmentak onak izan ziren. Mutil, neska nahiz haurrentzako jantziak eskuratu ahal izan ziren, prezio oso baxuan. Kolore, neurri eta estilo ezberdinetakoak. Hauek denak, nola ez, diseinu berriarekin eta modara egokituta. Kalean ibiltzeko, mendira joateko, nahiz etxean egoteko erabili daitezke, oso erosoak baitira.

Arratsaldean goizeko ekitaldien berri ematen zuen ale berezia kaleratu zuen HITZAK; jendeak gustura irakurri zuen eta nonahi ikusi ahal izan zen jendea eskualdeko egunkaria irakurtzen.

HITZAK Irurara leihoa ireki du



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ere present egon nahi izan zuen Kilometroen jaialdian eta ale berezia kaleratu zuen atzoko egunean; jendeak gustura irakurri zituen festaren inguruko albisteak; bihar ez da HITZARIK kaleratuko. ESTI EZEIZA

**Bihar ez da
Hitzarik izango**

Bihar, astearte, ez da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARIK argitaratuko, atzo, Kilometroetako jaialdiaren egunean lan egin ondoren erredakzioak asteko atseden eguna hartuko duelako. Asteazkenean berriz zuekin izango gara.

A Agurrak



Zorionak!
Malen (Berritxu). June, aitatxo, amatxo eta familiaren partetik.



Anoetar guztiei
bihotz-bihotzez
mila esker!



Ergoien,5
Tel.: 943 65 29 32
anoeta@ikastola.net



Kale Nagusia, 14 - 2. ezk.
20271 IRURA (Gipuzkoa)
www.sanmigelgarraioak.com
info@sanmigelgarraioak.com
T. 943 691 418
F. 943 696 483
M. 669 871 955

